



Deustuko Unibertsitateko ikaskuntza eredia





Deustuko Unibertsitateko irakasteko eta ikasteko ereduak aurkezten dugu orri hauetan. Lan unitateak faseka egituratu behar dira, ikasleek ikasi beharreko edukia pixkanaka eraiki dezaten eta jakintza hori modu esanguratsuan integra dezaten, gerora berreskuratzeke, erabiltzeko eta transferitzeko gai izan daitezten.

Hona hemen, laburbilduta, Marko Pedagogikoak proposatzen dituen bost faseak.

1. Testuinguruan kokatu



Esperientziaren testuingurua (ET)

Lehenengo pausoa izango da ikaslea jorratu beharreko gaien kokatzea. Ikaslea motibatu beharra dago, bere esperientziaren eta inguruaren bidez motibatu ere, gaiaren ideia global bat har dezan eta landuko diren edukiak zer testuingurutan diren garrantzitsuak eta aplikatzekoak ikus dezan.

Irakaslearen zeregin nagusia hauxe da: ikasleari ezagutza eraikitzen *laguntzea*, gai bakoitzaren egitura logikoa ikaslearen ikuspegi psikologiko eta sozialarekin uztartuz. Horretarako, kontuan hartu behar da ikaskuntza aurretiazko ideiak eta esperientziak dituen pertsona jakin batengan sortzen dela, hau da, bere testuinguru pertsonal, akademiko eta sozialetik abiatzen dela eta testuinguru hori zabaldu egin daitekeela gertuko edo nazioarteko inguru sozial, politiko, ekonomiko eta kulturalera.

Ahal dela, komeni da ikaskuntza ikasleen esperientziarekin lotzea (aurretiazko ideiak aztertu, era bateko eta besteko esperientziak agertu, gaia bere testuinguruan kokatzen lagunduko duten datuak eman, beste testuinguru batzuekin lotu, gerora begira igurikapenak egin, nola ikasten dugun hausnartu, ikasleen ikuspegi berdina eta desberdina alderatu). Taldean egin daiteke, testuinguruari buruzko esperientziak eta ikuspuntuak elkarri adieraziz eta alderatuz. Gainera, ikasleak beren ikas prozesuan inplikatu daitezten, garrantzizkoa da irakasleak eta ikasleek prozesu horren helburuak partekatzea eta ondo definitzea zein den ikasgaia, zer gaitasun sustatu nahi diren, zer eduki garatuko diren eta zer zeregin egin beharko diren.

2. Gogoeta egin



Behaketa eta gogoeta (BG)

Bigarren fase honen asmoa da ikasten duen pertsonak bere buruari galderak egitea, ezin baita ikaskuntza esanguratsurik egon, bakoitzak bere buruari galderarik egin ezik. Galdera bat edo batzuk izateak, gatazka bat egoteak edo dakienaren eta jakin edo egin behar duenaren artean tartea egoteak bultzatuko du ikaslea ekintzara eta, horrenbestez, jakintza eraikitzen.

Beraz, ikasleak galderak egitera eta erantzunak bilatzera bultzatu behar ditugu, inoren galderak eta erantzunak entzun aurretik: zer gertatzen da hemen? zertan datza gai edo egoera hau? zein dira gakoak? zer dela eta sortzen dira? zergatik? zertarako? zer erreakzio sortzen dit ohar honek? zer interesatzen zait? zer kontraesan sortzen du nigan? zer eragin du nire usteetan? zelan eragiten dit? zer ez dut ulertzen? zer pentsamendu edo hausnarketa iradokitzen dit? zer egin nezake?

Gure galderak eta gogoetak partekatzea talde lanean hasteko lehen urratsa izan daiteke: zein dira nire funtsezko galderak? zein dira ikaskideenak? zer galdera egin dituzte autoreek eta gai horretako adituek puntu horren inguruan? zelan baloratzen ditugu ekarpen horiek? Behaketa eta gogoeta egitea begiak zabaltzea da inguratzen gaituen errealitateaz ohartzeko eta, gogoetaren bidez, behaketa horrek benetan zer esan nahi duen geure buruari galdetzeko.

3. Kontzeptualizatu



Kontzeptualizazioa (K)

Hurrengo urratsa da gaiei buruzko jarrera teorikoak ahalik eta sakonen ezagutzea. Une honetan arlo zientifiko edo tekniko jakin batean garatuz joan den teoria hurbilduko diogu ikasleari: autoreek eta eskolek jakintzagai bakoitzeko itaunei zer erantzun eman dizkieten. Ikaskuntza kontzeptuala ezagutzak, terminologia zientifikoak, gertaerak eta datuak, metodoak eta estrategiak, printzipioak eta teoriak lortzean oinarritzen da. Horiek guztiek osatzen dute diziplina bakoitzaren ezagutza zientifikoa eta teknikoa.

Kontua da ahalmen kognitiboak – ulermena, pentsamendu analitiko-sintetikoa, pentsamendu kritikoa, pentsamendu dibergentea, etab. – erabiltzea, modu integratuan (kontzeptua, gertaera, datua, printzipioa edo teoria zientifikoa norberaren egitura intelektualean txertatuz) eta esanguratsuan (geure garapen pertsonalari, hots, geure jarrera, balio eta gaitasunen garapenari garrantzia duen ezaguera bat ekarriz) ikasteko.

4. Esperimentatu

Proiektuak egitea

Arazoetan oinarritutako ikaskuntza

Taldeko jarduerak

Kasuaren metodoa

Ariketak ebaztea

Documentuak irakurri eta analisi kritikoa egitea

Lehiaketak, gamifikazioa...

Prototipo bat diseinatzea

Esperimentazio aktiboa (EA)

Laugarren fase honetan zera pentsatu behar dugu: nola erabil ditzakete ikasleek lantzen ibili diren eduki horiek? Urrats hau teoria eta praktika uztartzean datza. Ikasleek kontzeptu, teoria edo ereduak aplikatzeko trebetasunak garatu behar dituzte, haiek finkatzeko, arazoak ebazteko edo eredu edo estrategia bat diseinatu edo hobetzeko. Hortaz, urrats honetan halakoak bideratzen dituzten era guztietako jarduerak sar daitezke (ariketak, praktikak, proiektuak, ikerlanak, diseinuak eta bestelako zeregin aktiboak).

Esperimentazio aktiboari oso ondo egokitzen zaio talde lana; izan ere, urrats honetan gaitasun desberdinen aplikazioa behar izaten da eta taldekideek egin dezakete askotariko ekarpen hori.

Fase hau aurrera eramateko, lagungarri gertatuko zaigu bi arlo hauek jorratzea: arlo teknikoa (zein diren ikuspegi, prozedura, estrategia, metodo eta baliabiderik egokienak egitasmo edo egiteko bat aurrera eramateko) eta gizarte edo giza arloa (zer eragin duten jarduera horiek pertsonengan, zer ondorio duten gizartean, ekologian, politikan, pedagogian, soziologian...).

5. Ebaluatu/Feedback-a eman



Ebaluazioa (EB)

Ezin dugu ikasziklo bat burutu zer egin dugun eta zer lortu dugun galdetu barik. Horretarako, hiru ebaluazio maila bereiz ditzakegu:

Norbere maila: ikasleak ikasitakoa hausnartzea eta baloratzea nahi dugu, batetik, bere ahalmen, muga eta motibazioak eta jarrera, uste eta balioak aintzat hartuta. Bestetik, ikasitakoak zer ekarpen egiten dion, zer balio duen berarentzat kontuan hartuta ere jasotzen da: zer uste du ikasi duela? zer ekarpen egin dio ikaskuntzak? zer zailtasun izan ditu?

Maila formatiboa: feedbacka funtsezkoa da ikasleak aurrera egiteko. Nola ikasten dugun, zein diren gairak beharreko zailtasun eta oztopo nagusiak eta zein diren zuzendu beharreko oker nagusiak jakitea behar-beharrezkoa da hobetzeko eta ahalik eta probetxurik handiena ateratzeko.

Maila sumatiboa: ebaluazio honen helburua ikasle bakoitzak egindako lanaren eta ikasitakoaren "kontu ematea" da. Hots, ikaslearen errendimendua "epaitu" edo baloratzea, kalifikazio akademiko bat emanez eta ikasleak gaitasun maila jakin bat lortu duela ziurtatuz.



Irakaskuntzaren Berrikuntzako Unitatea. 2016
innovacion.docente@deusto.es